

Kontxako bandera, epika eta lotsa

**Xabier Mikel
Errekondo**

Irailaren 10ean inoizko estropadarik ikusgarriena jokatu zen Kontxan eta ene begiek eguzki bi ziruditen emozioz gainezka sutan, aurpegia bera baino zabalago telebista pantailari itsatsita, sekula ikusi gabea sinistu ezinik. Zirraragarria, ikaragarria... hitz totalka erretorikan hiztegia motz egin zitzaidan. Olatu bortitz ilun artean hamalauna kideko oskol koloredunak borroka etengabeen bertan bagina bezala genituen sentitu, orain irentsiak orain arnas hartzen baleak lez. Hitz bakarrean, epikoa!

Kontxako Bandera zegoen jokoan eta emakumezkoetan zein gizonezkoetan bi ikasgai argi izan genituen: kronometroa baino arerioa dela gainditu behar eta Ban-

dera beraren afera lotsagarria. Kontxakoa ez da minutu-segundoen neurketa soila, 13.29ko estropadak 10.38koak baino emaitza hobea lor dezake, eta 21.39koak 18.53koak baino (errekora eta guzti). Gakoa ez baita kronometroa haustea, arerioari aurre hartzea baizik. Igande magikoak kirol honekiko ikuskera eta maitasuna biderkatu egin zigun eta generoen arteko distantzia ezdeustu. Izan ere, epikak ez du kronometroarekin zerikusirik, ez sexuarekin, pertsonarekin eta egoerarekin baizik.

Kontxako Bandera trapu txuri-urdin bat baino askozaz gehiago da, eta, hala ere, politikari arduradunak ezin traketsago ibili ziren, errazkeriatan. Prezioaren aitzakia merkepean Bandera trapu huts bihurtu

zuten bizio politiko errepikatuen inertzia jarraituz... apustu politikariren baten inguruko enpresa dela Valentziakoa! Ederra udal arduradunena, kalapita lotsagarriaren ondoren *made in Valentzia* bandera ez zuten ikuskatu ere egin eta akatsez josita-ko bandera astindu behar izan zuten Donibaneko eta Orioko arraunlariak; politikariak zeramatzan ontzian bertan; bikoitza iraina. Usadiozkoa bitartean, urtetan puntada bakoitza herrian bertan eskuz eta mimoz emandakoa, baztertua!

Magikoa izan zen bai igandekoa, lotsabako batzuek Kontxako Bandera trapu soilera makurtu zutenekoa eta arraunlarien epikak trapu iraingarria berriro Bandera preziatu izatera. Lotsa eta epika. •

«Hartuko duzu zerbait...»

Maider Iantzi

Baserri bide batetik paseatzen, emakume batek eskutik heldu eta ez nau askatzen. Pare pare, begira-begira ditut bere begi urdinak. Gardenak, beteak, nekatuak, pixka bat galduak. Bigarren eskua bertze emakume baten besoetan babestua du, gazteagoa da bera, Dominikar Errepublikakoa. «Hartuko duzu zerbait», erraten didate begi urdinek, etxera gonbidatuz. «*No sé qué dice. Desde hace un año solo habla euskara*», ondotik begi beltz handi irribarretsuek.

Ze gauza, bizitzaren azken etapara ailegatu eta burua lainotzen hastean sekula baino argiago ikusten dira norbere sus-traiak. Egia izanen da hasierara itzultzen

garela, ziklo bat itxiz. Emakume honi erdara ahortzi zaio, eta, halere, ederki konpontzen dira gaztelaniaz egiten duen zain-tzailea eta biak. Bakoitza bere hizkuntzan, bere munduan, egun osoan elkarrekin. Dominikarrak kontatu digu badi-rela urte batzuk etorri zela eta gustura dagoela. Zaintzen duen emakumeak ona dirudi. Samurtasun handia transmititu dit eta kosta zait agurtzea, indartsu estutzen nauen esku iharra soltatzea.

Paseotik bueltan, maldan behera, bere etxe aitzinetik pasatu gara berriro. Hantxe daude bi andreak lorez betetako terraza ederrean jarrita, bata bertzearen parean. Ikusi orduko, xaharra altxatu eta baranda-

ra arrimatu da, eskuakin hurbiltzeko keinuak eginez: «Hartuko duzue zerbait...».

Oroitzapen hau ekarri nahi izan dut Bizkaiko zahar etxeetako langileekin bat egiteko. 300 greba egun baino gehiago bete-ta, nekatuta baina seguru daude: borrokan jarraituko dute zaintza duintzea lortu arte. Bigarren mailako lantzat hartu arren, bizitzaren oinarria delako. Denok izan gara zainduak, zainduak gara orain ere eta zainduak izanen gara. Baliorik ematen ez diogun lan isil hori gabe ez dago ez pro-dukziorik ez erreprodukziorik. Kontua da norberaren (nagusiki emakumeen) ardura izaten segitzen duen ala jendarte gisa an-tolatzen garen guztiona izateko. •